

ARGI EDUKI EZAZU, LAGUN

Aiora Sebastián López

Gernika-Lumo

Gizakia izutzen dut,
hark ni izutzen nauen moduan.
Gizakia miresten duzu,
hark zu miresten zaituen moduan.

Askok esaten dute: «Ez nauzu beldurtzen»,
nigandik aldentzen diren bitartean.
Askok esaten dute: «Maite zaitut»,
besarkatzen zaituzten bitartean.

Batzuek besoak zabalik onartzen naute,
beste batzuek, ordea, nigandik urruntzeko borroka-
tzen dute.

Batzuek «amaierako argi hura» naizela esanez deskri-
batzen naute,
beste batzuek, «zerbait iluna» naizela esanez.

Ez dakit nola, nik ere ez baitakit zehazki zer naizen,
baina, beti argi eduki ezazu, lagun:
zu soilik maite zaituzte, ilusio faltsua zarelako,
ni gorroto naute, errealitate krudela naizelako.

Adeitasunez,
Herioa